

Donostia, 2025eko apirilaren 23a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, TAXI-ZERBITZUAREN ELEKTRIFIKAZIOARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko bozeramaile Victor Lasa jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udal-talde horrek batzordeetan mugikortasun jasangarriaren eta trantsizio ekologikoaren inguruan aurkeztutako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak mugikortasun-eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko erronka eta erantzukizuna ditu, isuri kutsatzaile gutxiago eta energia-efizientzia handiagoa izango dituen mugikortasun bat lortzeko. Konpromiso horren barruan, garraio publikoko ibilgailuen flotak heinean-heinean elektrifikatzea helburu komuna da tokiko, autonomia-erkidegoko eta Europako mailan.

Taxi-zerbitzua hiri-mugikortasunaren funtsezko elementu bat da. Gero eta taxilari gehiagok egiten dute ibilgailu elektrikoen aldeko apustua, bai ingurumen-arrazoiengatik, bai arrazoi ekonomikoengatik. Hala ere, trantsizio hori egiteko oztopo nagusietako bat da Udalak ez duela zuzeneko laguntza ekonomikorik ematen, eta ez dagoela ibilgailuak azkar kargatzeko azpiegitura egokirik, batez ere taxiak ohiko geldialdiak egiten dituzten puntu estrategikoetan.

Administrazio publikoek emandako laguntza ekonomikoak tresna eraginkorrek dira ibilgailu-floten elektrifikazioa errazteko. Birkarga-puntuei dagokienez, horrelakoak instalatzeko ezaugarri egoki batzuk dituzte taxi-geralekuek: hiri osoan modu ekitatiboan banatuta daude, sarbide errazeko lekuetan kokatuta daude eta espazio erreserbatua dute. Horrela, taxiaren sektoreko profesionalek modu eraginkorrean erabili ahal izango lituzkete, alferrik desbideratu beharrik gabe eta denbora operatiborik galdu gabe.

Taxi-geralekuetan birkarga azkarreko puntuak instalatzeak, gainera, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren helburuak betetzea erraztuko luke, bai eta Donostia Klima Ekintza Plana eta Donostiako Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana betetzea ere.

Hori dela-eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025a amaitu baino lehen txosten tekniko bat egin eta argitara dezala, taxiaren sektoreko profesionalak ibilgailu elektrikoak eskuratzea sustatzera eta erraztera bideratutako mekanismoak –ekonomikoak, fiskalak, logistikoak edo beste edozein motatakoak– aztertuko dituen.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025. urtea baino lehen azterlan tekniko bat egin eta argitara dezala, taxi-geralekuetan ibilgailu elektrikoak azkar kargatzeko puntuak instalatzearen bideragarritasunaren ingurukoa, irizpide objektiboetan oinarrituta.
3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiriko taxilarien elkarteekin elkarriketa-kanal bat ezar dezala, azterlan horien garapenean haien ekarpenak txertatzeko.
4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala lanorduetan karga-puntuak taxi elektrikoek soilik erabiltzeko aukera, era horretan, taxilarien kolektiboari puntu horien erabilera eraginkorra bermatuz.
5. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kanpoko finantzaketa-bideak (Europakoak, estatukoak edo autonomikoak) azter ditzala azpiegitura hori ezartzeko.
6. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025a amaitu baino lehen kronograma bat diseina dezala, taxiak azkar kargatzeko sare bat garatzeko epeak, helburuak eta irizpide objektiboak ezarriko dituen.

Victor Lasa

Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea